


Berrigara


BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 30a / 570. zenbakia

Taun taunen lan berria

TEAUENE



SAHARA: LAU TONA ELIKAGAI BATU DITUZTE BERGARAN/5 • ELKARRIZKETA: JOSE MARI ZEZEAGA /10




TXINTXAUN!

Ibarreko neska-mutikoak protagonista

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

TXINTXAUN
Laguntzaileak:
Aquarium, Erein, Eroski Bidaiak, Yelmo Cineplex
Babeslea: 

Eguaztenero,
20:30ean

Aurkezlea:
Mikel Aranburu

ATREBENTZIAEZPADA/ Eibar-Gasteiz autopistia erabiltzen dozu?



ANDER GOIKOETXEA
25 urte

Bai, bai, erabili izan dot. Donostiara juteko, batez be; Eibarrera juteko, nahixau dot lehengo bidetik jun, ez dira ta kilometro asko. Urrutirau juteko, berriz, erosuaua da autopistia.



JOSE MARI ZENITAGOIA
68 urte

Neuk ez, kotxerik be ez daukat eta. Gaiñera, Osintxun bizi naiz, eta hobeto etortzen jat lehengo bidetik jutia. Dana dala, autopistatik, Plazentzia pasatu barik etortzia, aldia izango da.



ANA CRISTINA REMEDIOS
31 urte

Bai, bai, astebururo erabiltzen dogu autopistia, Bilbora juteko; lehen, Eibarraren hartzen giñuan autopistia, eta oin, Bergaran. Eibarrera juteko be hartzen dogu autopistia.



FRANCISCO TENA
28 urte

Ez, sekula ez dot erabili; egia esatiarren, gehixau juten naiz Gasteiz aldera. Hara-ko autopistia bukatzen dabenian, nik uste dot erabiliko dotela, Gatzagako mendatia ez igotziagatik.



BEGO BARRENA
46 urte

Bai, Bilbora eta Donostiara jun izan naiz autopistatik; oso ondo jun gara autopistatik. Eibarrera juteko be, prisa haundixa euki ezkeru, adibidez, erabiliko nuke.



MIREN ZUBIZARRETA
44 urte

Ez, ez naiz sekula pasau; dana dala, biharra daukatengan, erabiliko dot. Adibidez, Donostiara edo Eibarrera juteko. Nik uste dot zerbitzu ona emoten doskula.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK IBAIONDOKO ISPILUA Irakurle bat etorri zaigu oraingo astean, kexa bat azaltzera. San Lorentzo ondoko zubitik Ibaiondo kalera sartzeko ez dagoela batere eroso azaldu digu. Badirudi ispilu bat zegoela lehen, baina iaz, udan, hainbat lan egin zituzten kale horretan, eta ordutik hona ispilua falta da. Horrela, ez ei da ikusten beste aldetik automobilik datorren. /AINTZANE IRIZAR

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLAK /10

KULTURA /14

Artekaleko proiektua

Artekale urbanizatzeko proiektua idazteko lanak Iñaki Aspiazuri esleitu dizkio Udalak.

Zarautz liderra bisitari

Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak Zarautz liderra hartuko du zapatuan.

Maite Toledo, sarituta

Deia egunkariko Ortzadar gehigarriak Maite Toledoren *Inaxi Sardaneta* ipuina saritu du.

ASTEKO DATUA

23

URTE PROFESIOALETAN ZEZEAGA PILOTARIAK

Apirilean 23 urte beteko dira Zezeagak profesioaletan debuta egin zuenetik. Uberarrak beste urte baterako kontratua sinatu du Asprekin. Txapela kentzeko moduko marka.

BESTE EKESANA

“Lastertasun Handiko Trenaren lotura Debagoienetik gertuago kokatzen saiatuko gara; denia dela, gauza hauek ondo ikusi eta aztertu behar dira, eta ez dugu uste faltsurik sortu nahi. ALVARO AMANN / Herrilan eta Garraio sailburua ‘El Diario Vasco’/04-01-22

“Espainiako Gobernuak indarrean jarri duen atzerritarren lege berria, Jaurilaritzaren eta udalteen inmigrazio planen aurka doa. Hainbat udalekin batzarrak egiten hasi gara, besteak beste, poliziari udalengan errolatuta dauden atzerritarren datuak ez emateko eskatzeko. AGUSTIN UNZURRUNZAGA / SOS Arrazakeria elkarte Gipuzkoako bozeramailea ‘Deia’/04-01-23

BERAIEK DINOE/ Maite Aristegi



Tren azkarraren gezurrak

Zoritxarrez lehendik be ohittuta gare kostia kosta, herrixaren gehixena aurka egonda be, gure agintarixek zenbait proiektu aurrera ateratzera. Hor dauka gu Itoiz-ko kasu tristia. Ez da lehen aldixa jendia konbenitzeko argumentuak falta direnean legien ginetik salto egin eta zikin tratuan gezur galantak entzun izan dituguna. Baina joan dan astean, bailaran tranbia eta AHTren gainian eskeinitako “argibideek” sutan jarri nabe. Ez dago jendia hala nahasteko eskubiderik!

Gure gizartearen beharrei, gure lurraldearen izaerari zer garraio eredu komeni jakon eztabaidatzeko aukerarik emon barik, imajinau be ezin dogun moduko Tren azkar txikitzaile bat inposatu nahi doskue. Gainera, jakinda gehixenek tranbia ondo ikusten dabela, berekin nahastuta erakusten doskue, kendu zan trenaren anai modernoa bezela, jostailuzko tren polit baten antzera. Eta jakinda Tren dontsu hori jendea

hiriburutik hiriburura mobiltzeko baino ez dala izango, eta gutxienez orduko 250 Kmko abiadura (edozein ataritan gelditzeko moduan!), zera dinoskue: “Trenaren helburu nagusia merkantziak garraiatzea izanda, hemengo errepideetako auto eta kamioien gainkarga arinduko luke” eta “saiatuko gara ahalik eta gertuen geltoki bat jartzeko” Antzuola edo egokixa litzake... Eta gu lelo aurpegi honekin! Horregatik, baten batek bere inuentzian gezur biribilok sinistu baditu, berriz be gogora eka-

rri beharko azken txosteneko egi gordina: “Ez da egongo Europar errentagarritasun gutxiagoko beste proiekturik, bai sozialki, ekonomikoki eta herri-lurralde arazoei begira. Ez eta txikitzaileagorik ere! Ez dago argumenturik hau justifikatzeko, gezurra baita errepideetako garraioak sortutako arazoari erantzungo liokeenik”. Eta, dana txikitu ostian, pasatzen baino ikusiko ez dogun mamutzar hori, zertarako orduan?

“Joan dan astean bailaran tranbia eta AHTren gainian eskeinitako argibideek sutan jarri nabe”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Bergarako
Udala

Antzuolako
Udala

Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 30**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ZAPATUA, 31**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 1**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 2**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 3**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 4**
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- EGUENA, 5**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Antulutorioa (txanda)..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
- Ertzaintza..... 943 53 47 20
- Osasun etxea..... 943 76 24 40
- Asepeyo..... 943 76 16 43
- Pakea..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
- Odol emalleak..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
- Igerilekuak..... 943 76 20 51
- Kultura etxea..... 943 77 91 58
- Liburutegia..... 943 77 91 62
- Kirolegia..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
- Erregistroa..... 943 76 13 15
- Jardun..... 943 76 36 61
- Idolaz..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
- Postetxea..... 943 76 26 85
- Bedelkar..... 943 76 04 68
- Akulu AEK..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Santa Marina
Domekak:
11:00, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | San Juan
Domekak: 11:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elorregi
Domekak: 12:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

ESKI IRTEERAK POL-POL ELKARTEAREKIN
Pol-Pol Mendizale Taldeak bi eski irteera egingo ditu otsailen: hilaren 13tik 15era Luz Ardidenera eta 27tik 29ra Baqueirara. Martxoan, berriz, Formigalera joango dira, 12tik 14ra arteko aste bukaeran. Aste Santuan ohiko irteera egingo dute Alpeetara, apirilaren 9tik 17ra, hain zuzen. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan 19:00etatik 20:30era, edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.

MATRIKULA ZABALIK HELDUEN ESKOLAN
Helduen Eskolan zabalik dago bigarren lauhilabete-korako izena emateko epea. Argibideak 943 76 44 52 zenbakian.

ARCO FERIARA IRTEERA
Beart herriko artisten elkarteak Madrilera, Arco feriara, joateko irteera antolatu du. Otsailaren 13an (egubakoitza) aterako dira, eta domeka arratsaldean itzuli. Gran Viako hotel baten egingo dute egonaldia, logela bikoitzetan, eta lagun bakoitzeko prezioa 150 eurokoa izango da. Argibideak eta izenematea 635 71 32 69 telefono zenbakian.

UDAL EUSKALTEGIA
Jardunean dauden taldeetan integratzeko aukera dago Udal Euskaltegian. Argibideak 943 76 44 53 telefono zenbakian.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoek eskulana izango dituzte zapatuan Arrizuriagan. Domekan, berriz, diaporama emanaldia izango da. Txiskrilabikoek ere eskulana izango dituzte zapatuan.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugeritza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Etxebarria eta De Pedro, Akonkaguatik bueltan

Iker Etxebarria eta Martin De Pedro bergararrek ezin izan zuten Akonkaguako gailurra (6.959 m) zapaldu. Beste lau lagunekin batera abiatu ziren abenduaren 27an Argentina aldera, baina eguraldi txarra izan zuten, eta ez ziren gailurrera iritsi. Martinek lehen graduko izozketak izan zituen.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Esku-zatarra."



Eskuak lehertzeko eta abar sukaldean erabiltzen den zapia. —Ekarri esku-zatarra eskuak garbitzeko.

GORKA ORTEGA

ASTEKOPELIKULAK


'MYSTIC RIVER'

ZUZENDARIA: CLINT EASTWOOD. AKTOREAK: SEAN PENN, TIM ROBBINS, KEVIN BACON.

HARIA. Jimmy, Sean eta Dave bahitu egin zituzten umetan. Orain, hirurak helduak dira, eta gertakari batek hiru lagunak elkartuko ditu. Haurtzaroko mamuak ez dira desagertu...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik.eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'EN AMÉRICA'

ZUZENDARIA: JIM SHERIDAN. AKTOREAK: SAMANTHA MORTON, PADDY CONSIDINE, SARAH BOLGER.

HARIA. Johnny eta Sarah Irlandatik New Yorkera, Manhattanera, doaz bizi izatera, bi alabekin batera. Etxe zahar batera iritsiko dira eta erronkaz beteriko bizitza hasiko dute. Seme baten heriotzatik ihes egin nahian dabil familia, eta gauzak ez dira errazak izango.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, otsailaren 5ean, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefonoz Aranzadi 2 behean
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GIZARTEA/ Jasotako materiala Donostiara eramango dute, eta Gipuzkoako laguntza karabana otsailaren 8an aterako da Alacanterantz

Lau tona elikagai eta 3.000 euro inguru jaso dituzte sahararren alde Bergaran

EDU MENDIBIL

Saharar herriaren alde bost tona elikagai eta 3.000 euro inguru jaso dituzte Bergaran. Antolatzaileek kanpainaren balorazio positiboa egin dute. Otsailaren 2a baino lehen Donostiara eramango dute jasotakoa, eta otsailaren 8an aterako da laguntza karabana.

Gipuzkoan batutako janari guztia otsailaren 8an eramango dute Donostiatik Alacantera. Espainiako Estatuan jasotako materiala, berriz, Alacantetik Oranera aterako da itsasontziz. Eta Oranetik Tindouf-era, Aljeriako hegoaldera, kamioietan bidaliko dute laguntza. Aljeriako basamortuan 200.000 saharar erre-fuxiatu inguru bizi dira gaur egun, eta haiek jasoko dute laguntza.

Bergaran, Udalak, Komite Internazionalistak gobernuz kanpoko erakundeak eta gaztetxeak egin dute bat sahararren aldeko kanpainarekin. Janariaz gain, diru bilketa ere egin dute Gabonen ostetik hona. Bergaran 3.000 euro inguru jaso dituzte: Bergarako Udalak 1.500 euroko dirulaguntza eman du, gaztetxeak 600 euro jaso ditu eta beste 1.000 bat euro denda eta tabernetan jarritako itsulapikoei esker jaso da.

LAU TONA ELIKAGAI

Oraindik ere badago dirulaguntza emateko aukera. Horretarako bi kontu korronte ireki dituzte, Kutxan bata (2101 0200 4400 1130 5190) eta Euskadiko Kutxan bestea (3035 0060 4506 0004 7469).

Janariari dagokionez, oinarritzko elikagaiak jaso dituzte:



Hainbat herritarrek astelehenean bertan sailkatu zuten jasotako materiala, eta Donostiara eraman baino lehen kaxetan sartu zuten.

Oraindik ere dirulaguntza emateko aukera dago Kutxan eta Euskadiko Kutxan

Iaz baino 500 kilo elikagai gutxiago jaso dituzte aurten Bergaran

azukrea, arroza, lekaleak, pasta, olio, atuna oliotan eta irina. Guztira, 4.120 kilo jaso dituzte Bergaran, iaz baino 500 kilo gutxiago, hain zuzen. Dena den, Markos Gabilondo Komite Inter-

nazionalistak taldeko kideak kanpainaren balorazio positiboa egin du: "Aurreko urteotan moduan, herritarrek bikain erantzun dute eta guztiei esker eman nahi dizkiegu. Lagun-

Bergaran jasotako janaria

ZER	ZENBAT
Azukrea	475 kg.
Arroza	784 kg.
Lekaleak	1.436 kg.
Pasta	510 kg.
Olio	495 l.
Atuna	315 kg.
Irina	105 kg.

kaxetan sartu zuten, lehenbizi Donostiara eta ondoren Alacantera bidaltzeko. Esan bezala, otsailaren 8an aterako da Gipuzkoako laguntza karabana Alacantera aldera.

APIRILEAN BISITA

Apirilean, berriz, Bergarako eta Estatuko beste zenbait tokitako ordezkariak joango dira sahararren kanpamentuetara. Apirilaren 7tik 11ra arte izango dira bertan. Bergaratik Komite internazionalistak taldeko hainbat lagun joango dira Tindouf-eko kanpamentuetara.

Angiozarren jardungo dute EHNA egiten

AINTZANE IRIZAR

Etzi, domeka, Angiozarko auzotarrek EHNA egiteko aukera izango dute, auzoan bertan. Izan ere, Bai Euskal Herriari taldeko kideak Angiozarko saloian egongo dira, 11:30etik 13:30era.

Hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro eraman behar dira Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena egiteko. Errolda agiria aldeaz aurretik eskatu behar izaten da udaletxean. Horiakin guztiekin, inprimakiak bete eta eskaera egiten dutenek aste batzuk barru jasoko dute EHNA.

Aurreko domekan, Osintxun egon ziren Bai Euskal Herriari taldeko kideak. Guztira, hamahiru EHNA tramitatu zituzten. Dena dela, jakinarazi digutenaren arabera, aurrez ere hainbat osintxuarrek dute agiria.

Bai Euskal Herriari taldeko kideek jakinarazi digutenez, dagoeneko 725 EHNA egin dituzte Bergaran, guztira.

Bestalde, azaldu digutenez, hemendik aurrera ere egongo da tramitazioak egiteko aukera Bergaran; dena dela, oraindik ez dituzte zehaztu horretarako lekua eta ordutegia.



Hamahiru osintxuarrek eskatu zuten EHNA aurreko domekan.



BERGARARA AURRERA

Oso jendetsua izan zen Bergara Aurrera-k zapatu eguerdian egin zuen prentsaurrekoa.

HAUTESKUNDEAK/ Zapatuan prentsaurreko jendetsua egin zuten

Bergara Aurrerak eskatu du 'Espainiari ezetz' esatea

AINZANE IRIZAR

Jende ugari elkartu zen aurreko zapatuan Bergara Aurrera plataformak egin zuen prentsaurrekoan. Martxoaren 14ko hauteskundearen gainean egin zuten berba, eta hauteskundeok *Espainiari ezetz* esateko aprobetxatu behar ditugula adierazi zuten.

Zapatu eguerdian Bergara Aurrera-k egindako prentsaurrekoan, *Espainiari ezetz* izan zen gehien entzun zen leloa. Hain zuzen ere,

martxoan Estatu mailan egingo diren hauteskundeak "Espainiari ezetz esateko aprobetxatu" behar ditugula adierazi zuten.

Jose Luis Elkorok, Aitor Arantxabalek, Ainhoa Agirreazaldegik, Jose Mari Etxanizek eta Iñigo Herrerosek hartu zuten parte, besteak beste.

ALDAKETA POLITIKOA

Euskal Herriak gaur egun bizi duen egoeraz berba egin zuten; "Euskal Herriaren markoaren gaineko eztabaida irekitzea lortu dugu", adierazi zuten. Dago-

neko aldaketaz, autodeterminazioaz, zazpi herrialdeez eta herri galdeketa berba egiten dela gaineratu zuten.

Herri honen gehiengo auto-determinazioaren eta aldaketa politikoaren alde dagoela adierazi zuten, eta baita erasoetatik babestuko gaituen aldaketa politikoa beharra dugula ere.

Martxoaren 14ko hauteskundeak, Espainiari ezetz esateko ez ezik, Euskal Herriaren aitortza-aren aldeko apustua egiteko ere aprobetxatu behar ditugula azaldu zuten.

LABen elkarretaratzea euskal presoaren alde

LAB sindikatuak euskal presoaren aldeko elkarretaratzea egin zuen aurreko egunean, urtarrilaren 22an, arratsaldean. Hogei bat lagun elkartu ziren saihesbideko irteeran, Ibargarain. LABeko kideek pankarta bat erakutsi zuten, sakabanatuta diren euskal presoak Euskal Herrira itzultzeko eskatuz. LABeko ordezkariak azaldukoaren arabera, hilean behin elkarretaratzea egingo dute. Argazkian, eguneko elkarretaratze irudi bat.



LABUR

Ikasle eta gurasoendako hitzaldiak antolatu ditu Ipintza institutuak datorren asterako

Ipintza institutuak ikasle eta gurasoendako hainbat hitzaldi antolatu ditu, Batxilergoa bukatutakoan zer egin erabakitzerakoan, laguntza moduan. Martitzenean, otsailak 3, Mondragon Unibertsitateko kide bat etorriko da, bertako ikasketen gainean berba egitera. Institutuko aretoan izango da hitzaldia, 19:00etan. Egunean, berriz, hilak 5, 19:00etan, Bergarako Miguel Altuna institutuko kide batek egingo du hitzaldia, lanbide heziketaren gainean.

Baserri bide publikoen egoera aztertzen jarraitzeko lana esleitu du Udalak

Baserri bide publikoen egoera aztertu eta horiek konpondu eta hobetzeko proposamenak jaso nahi zituen Udalak. Lan hori Eraiki SL enpresari esleitu zion, 2002ko azaroan. Orain, lana hasieran uste zuten baino handiago dela ikusita, hasitako dokumentua osatzeko ardura eman dio Udalak enpresa berari. 14.563 euroko aurrekontua izango du bigarren fase horrek.

Martxoko hauteskundeetara begira, hautesle errolda jarri dute ikusgai udaletxean

Udalak jakinarazi digunez, datorren martxoaren 14ko Espainiako hauteskundeetara begira, Bergarako hautesle-errolda dagoeneko ikusgai jarri dute udaletxeko idazkaritzan. Datorren astelehenera arte, otsailak 2, egongo da ikusgai; interesa dutenek errolda hori aztertzeko eta, nahi izanez gero, erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.

Bertso afaria datorren zapatuan, hilak 7, Artatse elkarteak, Lujanbio eta Eizagirrekin

Artatse elkarteak antolatuta, bertso-afaria izango dugu datorren otsailaren 7an, zapatua. Maialen Lujanbio eta Estitxu Eizagirre bertsolariak, hain zuzen ere, parte hartuko dute afari horretan. Artatse elkarteak bertan izango da afaria, 21:00etan. Bertso-afaria zabalik dago bazkide ez diren herritarrei ere. Honako tokietan daude salgai txartelak: Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan, hain zuzen ere, 20 euroren truke.

AEKren urte osorako soldataren zozketarako txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko

AEK-k urtero egiten du urte osorako soldata baten zozketa. Dagoeneko zozketa horretarako txartelak salgai jarri dituzte, bi euroren truke. Honako toki hauetan topatuko dituzte: Bergarako AEK Akulu euskaltegian eta Arrano, Etxagi, Kortazar, Avenida, Pol-Pol eta Tito's tabernetan.

Hilabetero 1.000 euroko soldata jasoko du txartel irabazleak. Otsailaren 27ko ONCeren zozketaren zenbakiekin bat datorren txartelak eramango du saria.

San Blas jaiak ospatuko dituzte hilaren 3tik 8ra

AINZANE IRIZAR

Otsailaren 3an da San Blas eguna. Eta, egun horretantxe hasi eta hilaren 8ra arte, ekitaldi ugari antolatu dituzte San Blasgo auzotarrek: mezak, mus txapelketa, dantza saioa, herri kirolak...

Datorren martitzenean, hilak 3, da San Blas eguna. Orduantxe hasiko dituzte ospakizunak auzotarrek. 11:00etan izango da meza nagusia, eta hantxe bedeinkatuko dituzte opilak. Ondoren, auzoko elkarteak, salda eta txorizoa banatuko dute.

Otsailaren 6an, egubakoitza,

auzo afaria egingo dute, 20:30ean. Ondoren, erromeria egongo da. Haritz eta Enaitz trikitalariekin. Zapatuan, hilak 7, mus txapelketa jokatu dute, 16:00etan.

Domekan, otsailaren 8an, azkenik, San Blas Txiki eguna ospatuko dute. 11:00etan, meza nagusia egongo da. Ondoren, elkarteak salda eta txorizoa banatuko dute. 11:30 aldera, berriz, Aranzadi ikastola-Moises Azpiroz dantza taldearen saioa egongo da. Jarraian, herri kirolen txanda izango da; Zelaik eta Miren Urkiolak jardungo dute harria jasotzen, eta Ugaitzek eta Aratzek aizkoran. Ondoren, umeendako kukainak egongo dira.

PRESOAK/ Eguaztenean laga zuen gose greba, hogeitun eta gero

Antxon Sasiainen eskubideen aldeko mozioa onartu dute

AINTZANE IRIZAR

Etixerat-ek aurkeztuta, Antxon Sasiain presoaren eskubideen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzarrek. Orain dela aste batzuk Normandiara eraman zutenetik (Paristik 125 kilometrorra), 20 egun egin ditu gose greban. Eguaztenean, hilak 28, laga zion protesta horri.

Parisko Osny espetxetik Normandiako espetxe batera eraman zutenean ekin zion gose grebari Antxon Sasiainek, eta eguaztenean, hilak 28, laga zion.

Gose greban egon den bitartean, hainbat ekitaldi egin dituzte bere eskubideen alde. Aurreko domekan, manifestazioa egin zuten, preso bergararraren egoera salatzen. Astelehenean, berriz, bere eskubideen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzarrek, Etixerat-ek aurkeztuta. EAJ, EA, Ezker Batua eta Aralar alderdien aldeko botoekin onartu zuten mozio hori; PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen, eta PPkoak, berriz, aurkako botoa eman zuten.

Mozio horretan, honakoa onartu zuen udalbatzarrek: alde batetik, Sasiainen egoera dela eta, Udalak neurriak hartzeko eta bere egoeraz interesatzeko konpromisoa hartu zuen; bestetik, Frantziako eta Espainiako gobernuari eskatzea euskal presoak Euskal Herrira ekar dituztela, eta euskal herritar bezala



OLAIA MONDRAGON

Domeka iluntzean, Antxon Sasiainen egoera salatzen manifestazioa egin zuten.

dituzten eskubideak errespetatu diezaietela; hirugarren puntuan, zera onartu zuten: "Euskal Herriak askatasunera bidean irekitako prozesuan parte hartzeko, euskal presoak Euskal Herrian

egotea ezinbestekoa dela aldarrikatzea"; azkenik, Antxon Sasiainen egoeraren berri zabaldu eta herritarrei dei egitea eskubide politikoen defentsan parte hartzeri.

Artekale urbanizatzeko proiektua idazteko lana esleitu du Udalak

AINTZANE IRIZAR

Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Artekale urbanizatzeko proiektua idazteko lanak Iñaki Aspiazu arkitektoari esleitzea. Urbanizatzeko lanak noiz hasiko dituzten, baina, zehaztu barik dago oraindik.

Artekale osoa urbanizatzeko asmoa dauka Udalak; horretarako proiektua Iñaki Aspiazu arkitektoak idatziko du. Bi hilabete epea izango du dokumentua idazteko, eta 11.805 euroko aurrekontua.

UDALETXE OSTEKO ZATIA BEZALA

Udaletxea eta San Pedro arteko zatia bezala urbanizatuko dute Artekale osoa. Irisgarritasun arauari jarraituz, lurzorua guztia maila berean egingo dute, eta oinezkoek izango dute lehentasuna. Dena dela, oraingoz, ez da soilik oinezkoendako kalea izan-



A.I.

Kale osoa udaletxe osteko zatia bezala urbanizatuko dute.

go. Izan ere, alde zaharreko zirkulazioan hainbat aldaketa egin beharko dituzte horretarako.

Proiektu hori Eusko Jaurlaritzaren Izartu programan aur-

keztuko dute, dirulaguntzak lortu ahal izateko. Izartu programarekin, gainbehera datozen udalerriek laguntzak emango dizkie Jaurlaritzak.

Labegaraietako kirolgunean skate pistak egingo dituzte

AINTZANE IRIZAR

Asteleheneko osoko bilkuran, Labegaraietako kirolgunean dagoen auditorioa eraisteko lanen baldintza plegua onartu zuten. Udalaren asmoa da orain auditorioa dagoen tokian skate pistak egitea.

Udalbatzarrek asteleheneko osoko bilkuran onartutakoa Labegaraietan skate pistak egiteko lehen urratsa izan zen. Kirolgune horretan dagoen auditorioa eraisteko proposamen teknikoa eta lanen baldintza plegua onartu zituen, hain zuzen ere. 13.950 euroko aurrekontua izango dute lan horiek.

Bestalde, Udaleko arduradunek azaldu zutenez, datorren astean bertan aurkeztuko du Iñaki Berasategi arkitektoak Labega-


raietako kirol eremu berriari dagokion planoak. Pare bat hila-bete barru, berriz, proiektu teknikoa ere aurkeztuko du arkitektoak.

LEHENENGO SKATE PISTAK

Udalaren asmoa da Labegaraietako gune horretan skate pistak egitea. Gaur egun, ez dago herrian era horretako pistarik. Kirol hori praktikatzen dutenak, baina, asko dira.

Udaleko arduradunen esanetan, herritarren artean skate pisten eskaria badago, eta bideragarria ikusi dutenez, hortxe egingo dituzte pistak. U itxurako pistak izaten dira skatearekin ibiltzekoak.

Dena dela, behin auditorioa eraisten dutenean, tokia aztertu eta orduantxe erabakiko dute zenbat pista eraiki.



A.I.

Gaur egun auditorioa dagoen tokian egin nahi dituzte skate pistak.

Eduegi baserria monumentu izendatu dute, behin betiko

AINTZANE IRIZAR

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak behin betiko izendatu du monumentu San Kristobalgo Eduegi baserria. Izendapen horrekin, babes berezia izango du aurrerantzean baserri horrek.

Orain dela hiru bat urte eman zion hasiera Jaurlaritzak izendapen hori egiteko espedienteari. Iaz, urrian, berriz, babes-araubidea zehaztu eta dokumentua jendarean jarri zuten, alegazioak egin ahal izateko.

Orain, berriz, behin betiko izaz, sailkatutako kultura ondasun deklaratu dituzte Eduegi baserria eta inguruak, monumentu izendapenez.

Izendapen horrek babes berezia ematen dio baserriari, erai-kina behar bezala zaindua izan dadin; baserri inguruak ere babesten du izendapen horrek, baserria kokatuta dagoen malda, hain zuzen ere.

XVI. MENDEKO BASERRIA

Malda ere izendapenean sartzeko arrazoiak, zera dio dokumentuak: "Malda hori ere babestu eta zaindu beharrekota da, baserriaren irakurketa zuzena egingo bada". Debagoieneko ohiko baserri motetako bat da Eduegi baserria: upelategidun dolare-baserria, hain zuzen ere. Baserri mota hori maldaren erdian egon ohi da, upelategia haran aldera ematen duen aldearen azpian jartzeko, lurraren malda hori aprobetxatuz. Horregatik, altxaera asimetrikoa da eta aldeko paretak altuera desberdinekoak dira. Horixe da, gainera, baserriaren ezaugarri nagusienetako bat.

Aldaiegia edo San Kristobal auzoan dago Eduegi. Debagoieneko XVI. mendeko baserri-dolaren bilakaeraren eta egokitzapenaren adibide bikaina da. Gotiko-Berpizikunde garaiko baserria da. Barroko aroan eraberritu egin zuten baserria, eta arkupean zatia gehitu zioten. Fatxadan, bestalde, armarrak dotorea dauka.



HELDUEN ESKOLAKOAK, ETB-N

Bergarako Helduen Eskolako ikasle talde bat ETB-2ko *Lo que faltaba* saioan izan zen joan zen urtarrilaren 14an. Hogeita hamar lagun inguru joan ziren Durangoko estudioetara eta primeran pasatu zuten. Argazkian, Bergaratik joandako taldea Yolanda Altzola eta Txetxu Ugalde aurkezleekin. Datoñren otsailaren 20an Madrilerara bidaia egingo dute, eta TVEko *Saber vivir* eta *Por la mañana* saioak zuzenean jarraituko dituzte.



KULTURA ASTEA IPINTZAN

Kultura Astea ospatu dute Ipintza Institutuan egunotan. Antzerkia, sukaldaritza lehiaketa, kirol jarduerak eta beste hainbat ekitaldi izan dituzte. Martitzenean, lehengo eta oraingo txirridularitzaren gaineko mahai-ingurua izan zuten. Jesus Arantzabal beteteranoa Markel Irizar Euskalteko azken fitxaketarekin eta Unai Arantzabal eta Gurutz Larrea gazteekin izan zen solasean. Ikasle mordoak bildu zen aretoan. Gaur ospatu duten Santo Tomas egunarekin amaitu da Kultura Astea.



JAIK UBERAN

Uberako San Paulo jaien barruan, tortilla lehiaketa egin zuten zapatu eguerdian Jaolatza elkarteak. Jesus Mari Elortzak irabazi zuen lehiaketa eta bigarren saria Meltxor Markiegi eta Juan Antonio Lazpiurrendako izan zen. Hirugarren tokian geratu ziren, berdindurik, Mari Jose Apalategi eta Maria Angeles Barraikua alde batetik eta Luis Mari Gutierrez bestetik. Bestalde, mus lehiaketan 16 bikote izan ziren lehian eta Emilio eta Luis Mari Gutierrez anaiek irabazi zuten. Diru sariaz gain, trofeoa eta bildotsa eskuratu zituzten; Macario eta Juan bigarren geratu ziren, eta trofeoa eta dirua jaso zituzten; hirugarren Albisua eta Txara (diru saria) geratu ziren; eta laugarren, Etxeberria eta Ugarte. Azken horiek bi oilasko, pare bat botila ardo eta botila bat xanpain jaso zituzten.



GASTEIZEN PATINATZEN

Jarduneko gaztetxoak izotzetan patinatzen izan ziren zapatuan, urtarrilaren 24an. Txapligu taldekoak joan ziren Gasteizeko izotz pista, eta, esan beharrik ez dago primeran pasatu zutela, nahiz eta mutiko batek zoritxarreko erorikoa izan eta eskumuturra apurtu zuen. 9-11 urte bitarteko 96 neska-mutiko joan ziren, eta beraiekin batera Jarduneko bederatzi begirale izan ziren Gasteizen.

ZUHAIZTI
taberna

Orain
eguneko menuak!

Otsailaren 2tik aurrera,
asteleheneetik ostiralera
eguneko menuak Zuhaiztin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

MINGAINARITIRAKA

NIREBIDAIAHURA / Iratxe Azkarate

KUBA / 2003ko martxoan

Ezkontza-bidaia egitera Kubara joan ginen Jon senarra eta biok, iaz, martxoan. Ez genuen nahi antolatutako bidaia egin; kubatarren bizimodua nolako den ikusteko, nahiago genuen kubatarrekin beraiekin egon. Beraz, turistendako hoteletara joan beharrean, etxe partikularretan ibili ginen. Aurrez gure lagun bat egonda zegoen Kuban, eta hark eman zizkigun hainbat helbide eta telefono. Etxe partikularrak alokatuz gero, etxe ofizialak (gobernuaren baimena dutenak) eta legez kanpokoak daude. Prezioan badago aldea: etxe ofizial batean bi lagunendako pentsio osoak 36 dolar inguru baho du eta besteetan, berriz, 17 dolar. Erosotasun handirik gabeko etxeak dira, eta horretarako gertu egon behar da; beti ez dago dutxa hartzeko urik adibidez. Baina, tira, ondo moldatu ginen.

Habanan, ohiko tokietatik aparte (Malekoia, Habana Zaharra...) ez genuen gauza handirik ikusi, egia esateko. Turisten gainean egoten da hango jendea, eta, alde horretatik, nahiko neketsua da. Kuban ikusitako beste tokietan askoz ere lasaiago ibili ginen, alde horretatik. Habanatik Cienfuegosera joan ginen. Autobus geltokietan-eta auto partikularrak alokatzeko eta beste jende batekin konpartitzeko aukera dago, pre-



“Kubatarren bizimodua pixka bat ezagutzeko etxe partikularretan ibili ginen”

“Galtzada-harrizko kale dotoreak eta kolore argiekin margotutako etxeak daude Trinidaden”

zio merkean, gainera; eta horrela ibili ginen alde batetik bestera joateko. Cienfuegos kostaldetik oso gertu dago. Toki polita eta lasaia da, eta hango jendeak harrera bikaina egin zigun. Horren ondoren, Trinidadan izan ginen: galtzada-harrizko kale dotoreak daude han, eta etxeak oso politak dira, kolore argiekin margotutakoak. *Las Escalinatas* deitutako tokian jendea elkartu egiten da, dantzan egiteko, eta benetan giro ederra egoten da. Kubatarrak horrelakoak dira, alaiak eta irekiak. Pazientzia handikoak ere bai, han ez dute ezertarako presarik. Dantza, moji-toak eta rona ere ez dira inoiz falta. Gu joan ginen moduan joanda, gainera, are hobeto hartzen zaituzte. Liluratuta geratu ginen kubatarren izaerarekin. Bestalde, Trinidadan, Topes de Collante ere ikustekoa da, oiha-nean zaudela ematen du-eta.

Varadero hondartzan ere izan ginen, eta bidaiako azken egunak Cayo Cocon eman genituen. Habanatik abioian joan

ginen eta lau egunez egon ginen, hango hotel on baten. Lasai-lasai egon ginen, eta Iguanen Uhartea ikusi genuen han. Kubari agur esan aurretik, atsedean hartzeko toki ederra da Cayo Coco.

EDU MENDIBIL



Argazkian, Iratxe, Cienfuegosko kaleetan, Nilo eta Juan Luis izeneko kubatarrekin batera.

Fernando Zuazo

HELDUEN ESKOLAKO IRAKASLEA

Durangon jaioa, aspaldian Bergaran bizi da Fernando. Biologia ikasketak egin zituen, eta Helduen Eskolan dabil lanean. Aurretik, Oñatiko, Arrasateko eta Zarauzko institutuetan jardun zuen. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba dituzte.

Ikasle gazteak ala helduak nahiago?

Biak nahastuta hobeto, orain bezala. Batzuen esperientziarekin eta besteen txantxetarako gogoarekin giro majoa sortzen da.

Irakasle ona izateko beharreko dohaina?

Ikasleekin *konektatzeko* gaitasuna izatea.

Zer errepikatzen diezu ikasleei behin eta berriz?

Autonomoak izaten saiatu behar direla.

Helduen artean zein da ikasgai arrakastatsuen?

Eta zailena egiten zaiena?

Nire esparruan, matematikarekin ibiltzen dira gustura, eta fisikarekin, beharbada, zailtasun handiagoa izaten dute.

Txikitan ikasle ona zinen?

Onegia; beharbada, arduratsuegia.

Zer izan nahi zenuen txikitan?

Biologoa.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Lasai ibiltzea.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

El niño del jueves negro (Alejandro Jodorowski)/

Felliniaren edozein/Van Morrison.

Mendizalea zara? Inguruko mendi bat?

Bai. Anboto gustatzen zait asko.

Egunkarian zein albiste irakurri nahi zenuke?

Euskaldunon artean ados jarri garela.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Bizitzari berari.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Oсотasuna, zintzoa izatea.

Aste bukaerarako plan on bat?

Familiarekin planen bat egitea.

Zer eskatuko diozu urte berriari?

Ezer ez, ez dut etorkizunean sinesten.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Yemenera bueltatuko nintzateke, hara egindako bidaia izugarri gustatu zitzaidan-eta.

EDU MENDIBIL

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

AGIRRE JANTZI DENDA

% **50**

Bidekurutzeta 18. Tel.: 943 76 72 67



ELKARRIZKETA

JOSE MARI ZEZEAGA/ASPE ENPRESAKO PILOTARIA

“Nire burua ondo ikusten dut, eta ez dut oraingoz erretiroan pentsatzen”

EDU MENDIBIL

Jose Mari Zezegak beste urte baterako kontratua sinatu du Asperekin. Uberarrak 42 urte egingo ditu otsailaren 20an, eta apirilaren 23 urte beteko dira profesionaletan debuta egin zuenetik. Oraindik ere indarrez ikusten du bere burua.

Iaz egindako lanaren saria izan da kontratu berritzea?

Iaz gustura ibili nintzen eta 60 partidutik gora jokatuko nituen. Baina enpresek ez dute ezer oparitzen, are gutxiago pilotariak murrizten hasi direnean. Nire burua ondo ikusten dut eta Aspek ere nirekin konfiantza duela erakutsi du. Aurten gutxienez 50 partidu jokatuko ditudala agindu didate.

Eta zein da adin horretan goi mailan eta sasoiaren egoteko sekretua?

Gero eta gehiago zaindu beharra dago, baina ez dut aparteko gauzarik egiten. Nire kasa entrenatzen naiz, eta ondoen nik dakit momentu bakoitzean zer eman dezakedan. Batzuetan gogorra izaten da nork bere burua entrenatzera behartzea, baina ni ondo moldatzen naiz horrela: fondoa, pisuak eta frontoia tartekatzen ditut astean zehar. Beste batzuek,

berriz, nahiago dute taldean entrenatu.

Urtebeterako kontratua sinatu arren, erretiroa urrun ikusten duzu oraindik?

Ez dut horretan pentsatzen. Onena zure lanbidean zentratuta egotea da, konstantea izanez, eta azken urtea izan daitekeela pentsatu gabe. Azken baten, beste zerbaitetan has zaitezkeela ikusten baduzu, errazago erretiratzen zara. Iaz, adibidez, hiru lesio izan nituen eta errehabilitazioa eta berriz jokatzea bakarrik neukan buruan. Egoera horretan beste aukeraren bat eduki izan banu, erretiroan pentsatzen egongo nintzatekeen agian.

Txapelketan parte hartzeko aukera baztertu duzu?

Bai. Txapelketan parte hartzeak maila handia eskatzen du, oso zorrotza da, eta oso zaila da hor lekuren bat izatea. Bestelako pilota jaialdietan parte hartzea-

rekin konformatzen naiz momentuan.

Zeintzuk dira zure faboritoak txapelketan?

Aimar Olaizola eta Beloki dira faborito nagusiak. Txapelkun ateratzen ez badute, porrot handia litzateke. Banaka? Hor multzo zabalagoa dago: Ruben, Aimar, Barriola... Patxi Ruiz ere hor dago...

Askotan bikotekide izan duzun Goñik badirudi ez duela burua altxatzen...

Fisikoki oso gaizki dago eta bera delako barkatzen diote gauza asko. Zaila izango da Goñi aldatzea.

Atzelarien artean, zeintzuk ikusten duzu ondoen gaur?

Beloki. Konpletoena bera da. Fisikoki oso ondo dago eta esperientzia handia dauka.

Egoera onean dago pilota?

Urte hobeak izan dira: gaur egun, txapelketatik aparte, jende gutxi dabil frontoietan eta orain dela 10 urte askoz ere jaialdi gehiago zeuden. Enpresetan ere taldeak murriztuz doaz... Pilotaren egoera ez da telebistak erakusten duen bezain distiratsua.

Ez zara inoiz izan komunikabideetan agertzekoa.

Ez. *Pelotilleo* eta interes asko dago kazetarien inguruan. Nahiago dut joko horretan ez sartu.



“Onena zentratuta egotea da, azken urtea izan daitekeela pentsatu gabe”

Zarautz, preferente mailako liderra, bisitari izango dute bihar mahoneroek

E.M.

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak Zarautz liderra hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Bergarak urrats garrantzitsua eman dezake zarautzarrei irabaziz gero.

Joan den asteko jardunaldian Tolosari 1-2 irabazi eta gero, Bergararendako berebiziko garrantzia dauka biharko partiduak. Bihar hiru puntuak eskuratuz gero, Bergarak sailkapeneko goialdeko taldeekin alde murriz dezake. Esan bezala, Zarautz da liderra, 39 punturekin, eta ondoren Berio (39), Elgoibar (38), Mondragon (35), Aloña Mendi (33), Bergara (31) eta Tolosa (29 puntu) daude.

Bergarak urrezko hiru puntu lortu zituen joan zen zapatuan Tolosako Berazubi futbol zelaietan.

Tolosarrak aurreratu ziren arren, Oterok eta Maiztegi egindako golei esker 1-2 nagusitu ziren bergararrak.

Bihar ez dute partidu erraza izango Juanina Garaien mutilek: Zarautzek bi partidu besterik ez du galdu orain arte. Era berean, gol gutxien jaso duen taldea da Zarautz: 15 gol bakarrik egin dizkiote. Aurreko jardunaldian 3-0 irabazi zioten Santo Tomas Lizeoari, Zarautzen.

BESTE BOST PARTIDU ASTEBURUAN

Zapatuan bi partidu jokatuko dira Ipintzan: Bergara-Anaitasuna (infantil maila, 12:00etan) eta Bergara-Dunboa (gazte maila, 18:00etan). Domekan, berriz: Bergara-Ikasberri (kadete maila, 10:00etan); Bergara-Zumaiako (neskak, futbol-8, 11:30ean); eta, azkenik, Bergara-Eibartarrak (senior mailako neskak, 17:00etan).



Bergarak hiru puntuak eskuratu nahi ditu bihar Agorrosinen, Zarautzen aurka.

ESKIA

Eski irteerak otsailean Pol-Pol elkartearekin

Pol-Polek bi eski irteera egingo ditu otsailean: hilaren 13tik 15era Luz Ardidenera eta 27tik 29ra Baqueirara. Martxoan, berriz, Formigalera joango dira, 12tik 14ra arteko aste bukaeran. Argibideak Pol-Polen, 943 76 48 51 zenbakian.

TXIRRINDULARITZA

Lasterketetan parte hartzeko lizentzien berritza

Lokatza Ziklismo Eskola lasterketetan parte hartu ahal izateko federatu txartelak berritzen hasi da. Interesatuak egunetan jo dezakete Lokatzak San Martin plazan duen bulegora, 20:00etatik aurrera. Argibideak 619 73 95 07 (Mikel Larrañaga) telefono zenbakian.

Gazte eta kadete mailetako eskubaloit taldeak, etxean asteburuan

E.M.

Bergara KEko gazte eta kadete mailetako eskubaloit taldeek etxean jokatu dute aste bukaeran, Labegaraietan. Kadete mailako bi taldeek etxetik kanpo irabazi zuten aurreko jardunaldian.

Kadete mailako nesken taldeak Muskizi irabazi zion aurreko astean, 15-35. Oihana Garmendiak zuzendutako taldea uste baino errazago nagusitu zitzaion Muskizi. Bihar, zapatua, Arrateren bisita izango dute bergararrek. Partidua 17:45ean hasiko da, eta etsai gogorra izango du Bergarak, Arratek talde indartsua dauka eta.

Xabier Lijok eta Josu Labakak zuzentzen duten kadete mutilen taldeak, berriz, denboraldiko bigarren partidua irabazi zuten aurreko jardunaldian, Oñatin. Partidu lehiatsua izan zen, eta




OLAIA MONDRAGON

Kadete mailako nesken taldeak Arrateren aurka neurtuko ditu indarrak zapatuan.

Bergarak gol bakar bategatik irabazi zion Aloña-Mendiri, 25-26. Domekan Zarautz hartuko du Bergarak kiroldegian, 12:15ean.

GAZTEAK, TOLOSAREN AURKA
Azkenik, gazte mailako mutilen taldeak Tolosaren aurka jokatu du zapatuan, 19:15ean.

FOTOKIROLA



Bergararrak 3. eta 4. postuetan Aretxabaletako frontenis txapelketan

Carmelo Barcala-David Bellanco eta Patxi Vallejos-Xabier Albisua 3. eta 4. postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren, Aretxabaletako frontenis txapelketan. Bergararren arteko neurketan Barcala eta Bellanco nagusitu ziren, 25-23. Finala, berriz, Oscar Mendozak eta A. Lopezek irabazi zuten; finalean, Iñaki Sanchez eta Kepa Garciari 30-19 irabazi zieten. /ARGAZKIA: ASIER MUJIKA.

PILOTA

Udaberriko Txapelketaren barruan, kadete mailako partidua gaur Udal Pilotalekuan

Udaberriko Txapelketako partidu bat jokatu da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan. Aitor Osak eta Jon Larrañagak osatu-tako lehen kadete mailako bikoteak Hernaniko ordezkarien aurka jokatu du, 20:30ean hasita.


Partidu horren aurretik, benjamin mailan, herri mailako Udaberriko Txapelketako hiru partidu izango dira, 19:30ean.

KIROLA

Herriko eta Debagoieneko kirol txartelak egiteko aukera Udal Kirol Zerbitzuan

Kirol txartelak berritzeko epea zabalik dago Kirol Zerbitzuan. Herriko instalazioak erabiltzeko txartelak 94,70 euro balio du (62,80 ikasle eta langabeendako). Familia txartela, berriz, 124,70 eurokoa da bi kidekin eta 132,80 eurokoa hiru edo lau kidekin. Debagoieneko txartelaren prezioak hauek dira: 78,65 euro (18 urtetik behera), 112,90 euro (18 urtetik gora) eta familia txartela, 157,30 euro.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA



ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Torpedo-Egurre. De Resaka

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Teatekh-De Resaka. Torpedo

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Komando Piperrak-Txipiron. Etenga.

10:30: Pirulotarrak-Etengabe. K. Piperrak

16:00: Dedo Pafarru-SDTNT. Fac

17:00: Pagomendi-Fac. Argandolas

18:00: PDS-Argandolas. Cosa Nostra

19:00: Teatekh-Cosa Nostra. Vervenir

20:00: Vervenir-Belengua. Teatekh

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Canalejas-Irubide. Toton Aniketan

12:30: Toton Aniketan-Errotagain. Irubide

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskoizuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ARANZADI IKASTOLA



2004/05

ikasturterako matrikulazioa

ELKARREKIN HAZI
HEZI ETA BIZI EUSKARAZ!

HAUR HEZKUNTZATIK BATXILERGORA
MATRIKULAZIO EPEA: OTSAILAREN 16TIK 27RA

ARANZADI IKASTOLA
Herri Onurako Irakaskuntza Kooperatiba



ZAHARRAKBERRI

Appalde pentsionisten eta aurrez erretiratuen elkarteak pentsio duinen aldeko 1.200 sinadura jaso ditu Bergaran

EDU MENDIBIL

Pentsionisten eta aurrez erretiratuen Appalde Debagoieneko elkarteak sinadura bilketa egin dihardu azken hilabeteotan. Pentsio duinagoak aldarrikatzen dituzte Appaldeko kideek. Joan zen zapatuan, hilaren 24an, sinadurak batzen jardun zuten Bergaran.

Zapatu goizean, 350 sinadura inguru jaso zituzten Appaldeko kideek Bergaran. Ibargarai kalean eta San Martin plazan izan ziren pentsioen inguruko aldarrikapenak herritarrei helarazten.

Alargunen pentsioen kasuan, gutxienez hileko 600 eurokoa izatea eta erregulazio-oinarriaren %70 aplikatzea aldarrikatzen du Appaldek. 35 urtek kotizatu ondoren, 65 urtetik gorako aurrez erretiratuek %100 jasotzea eskatzen dute. Legediak aurrez erretiratutako langileak erabat diskriminatzen dituela salatu izan du Appaldek. Egoerak zertxobait hobetzea lortu dute: hain zuzen ere, aurrez erretiratutako urte bakoitzeko kentzen zaien ehu-

*Estatuan
500.000 sinadura
batzea da helburua,
Senatuan aurkeztu
ahal izateko*

nekoa bi puntu jaistea lortu dute, %8tik %6ra. Appalde duela bi urte sortu zen, eta gaur egun 170 bazkide inguru ditu.

SINADURAK, SENATURA

Zapatuko eguraldi eskasa kontuan izanik, Bergaran jasotako sinadura kopuruarekin pozik azaldu dira. Regino Valle Appaldeko ordezkaria da Bergaran: "Gure aldarrikapenekin bat egin dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu. Bergaran dagoeneko 1.200 sinadura inguru jaso ditugu eta martxo bitartean sinadurak batzen jarraituko dugu, bai Bergaran eta baita Debagoieneko beste herrietan ere".

Estatuan 500.000 sinadura batu nahi dituzte, martxoan Madrilgo Senatuan aurkezteko.



Zapatuan egindako sinadura bilketako irudi bat. Appaldekoak pozik daude orain arte jasotako erantzunarekin.

OLAIA MONDRAGON

SAN JOXEPEKOAK, SANTA AGEDA ESKEAN

Bestalde, San Joxepeko abesbatzako kideak Santa Ageda eskean aterako dira datorren eguaz-


tenean, otsailaren 4an. Goizeko 10:30ak aldera Moja Zaharretan hasiko dira kantuan eta ondoren, Mizpirualden, Mariaren

Lagundian, Bidekurutzetan, San Martin plazan, Barrenkalen, Simon Arrietan eta Fraiskozurin abestuko dute.

ARREGI AROZTEGIA



PVCzko
LEIHOAK



Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK

SUKALDEAK



ATEAK ETA
LEIHOAK



BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



Karlos Odriozola, Itsaso Azkarate eta Iñaki Mata Taun Tauneko kideek abenduan aurkeztu zuten *Teauene*.

'Galtzerdia' lanarekin Gijongo Jaialdian parte hartuko du talde bergararrak martxoan

'Teauene' helduei zuzendutako lana egin du Taun Taunek

EDU MENDIBIL

Taun Taun antzerki taldeak *Teauene* helduei zuzendutako lana aurkeztu berri du. Beraien azken lana bistarako entretenimendu poetikoa dela adierazi digute, eta, aurreko lanetan moduan, umoreak ere berebiziko garrantzia dauka.

1987an *Izu ikara haripean* estreinatu zutenetik, honako hau taldearen hamargarren lana da. Itsaso Azkaratek zera adierazi digu: "Azken urte eta erdian, urrian estreinatu genuen *Galtzerdia* eta

Teauene lantzen izan gara. Azken honetan sortze lanak garrantzi handia izan du, eta poesia, ikusaldierdia eta umorea uztartzen dituen lana dela esango nuke".

Lan horretako protagonistak amets edo amesgaizto moduko bat izango du. Esnatzerakoan, burua falta zaiola ohartuko da, eta, hortik abiatuta, hainbat esketx landu dituzte Taun Taunekoek: "Protagonistaren egozina islatu nahi izan dugu. Protagonistaren ohea lanerako mahaia dugu eta antzezlanean bizitza propioa duten hainbat objektu azaltzen dira. Era berean, eszena tokia nolabait biluztu

nahi izan dugu, manipulatuzaile-aktoreoi garrantzia emanez. Manipulatuzailearen figurak berebiziko garrantzia dauka", dio Itsasok. Aktore lanetan Iñaki Mata, Karlos Odriozola eta Itsaso bera arituko dira, eta, aurreko lanetan moduan, Koldo Lizarralde arduratu da musikaz eta Santi Ezkurra argiez. Lanak ordubete inguru irauten du.

MARTXOAN, GIJONERA

Taun Taunek Xixongo Feten Nazioarteko Jaialdian parte hartuko du martxoaren 3an, *Galtzerdia* lanaren gaztelarazko bertsoarekin, hain zuzen ere.

LABUR

'Bergara, historia topagunia' zikloaren barne, Santiago Piqueroren hitzaldia martitzenean

Udal Artxiboak antolatutako *Bergara, historia topagunia* hitzaldi sortarekin jarraituz, Santiago Piquero EHUKo Historia eta Ekonomia Erakundeetako Katedradunak hitzaldia egingo du martitzenean, otsailak 3, Miguel Altunako areto nagusian, 19:30ean. Piqueroren hitzaldiak honako izenburua dauka: *La alimentación en el Real Seminario de Bergara. Un motivo para reflexionar sobre los cambios alimentarios en el País Vasco en los siglos XIX y XX*.

Gitarra ikastaroa otsailaren 6tik aurrera Jarduneko gazte sailaren eskutik

Jarduneko gazte sailak antolatuta, gitarra ikastaroa izango da otsailaren 6tik apirilaren 2ra bitartean, Arrizuriaga jauregian. Eskolak egubakoitz arratsaldeetan izango dira, 19:00etatik 20:30ak arte.

Oraindik ere izena emateko aukera duzue. Ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea astelehenera arte (otsailak 2) izango da zabalik. Argibideak Jardunen edo 943 76 08 19 zerbakian.

Antzerki emanaldia eta musika kontzertua aste bukaeran Bergarako gaztetxean

Gaur, egubakoitza, Detritus taldeak *Las punkis también lloran* izenburuko antzezlan eskainiko du Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

Zapatuan, berriz, kontzertua egongo da gaztetxean, 22:30ean hasita. Ermuko Puto Amoak Matematiketan eta Balmasedako DNG taldeek joko dute gaztetxean. Ermuarrek *The Killin' washin' machine* azken diskoa aurkeztuko dute.

Vicente Martin margolariaren erakusketa kultura etxean ikusgai otsailaren 8ra arte

Vicente Martin Calderon margolariaren erakusketa ikusgai dago egunotan kultur etxeko aretoan. Otsailaren 8ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegiarekin: aste barruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Vicente Martin Calderon Toledokoa, Talavera de la Reinakoa dugu, eta 32 akuarela zintzilikatu ditu kultura etxeko paretetan.

Misfits eta Thee Tumbitas taldeen kontzertua datorren zapatuan, otsailaren 7an, Jam-en

Datorren zapatuan, otsailaren 7an, Misfits eta Thee Tumbitas taldeek joko dute Jam aretoan, 22:00etan hasita. Sarreraren prezioa 18 eurokoa da aurrez eskuratuz gero, eta 20 eurokoa egunean bertan Jameko txarteldegian erosita.

Bestalde, Moonspell taldeak otsailaren 1ean eman beharreko kontzertua bertan behera geratu da, portugaldarrek atzeratu egin dutelako Estatuan egin beharreko jira. Laster emango dute jakitera kontzertuko data berria.

Maite Toledoren ipuin bat, sarituta

E.M.

Maite Toledoren *Inaxi Sardaneta* izenburuko ipuinak aipamen berezia jaso du aurtengo Ortzadar Ipuin Lehiaketa-Xabier Leizaola sarietan. Sari banaketa joan zen egunean izan zen, hilaren 22an, Bilboko Carlton hotelean.

Deia egunkariaren Ortzadar literatura gehigarriak antolatutako lehiaketaren zazpigarren ekitaldia izan da aurtengoa. Guztira, 151 ipuin jaso dituzte aurtentzen, horietatik 31 euskaraz eta 120 gaztelaraz. Euskarazko lanei dagokienez, Julen Gabiria idaz-

le galdakoztarrak eta Leire Bilbao bertsolari ondarrutarrak osatu dute epaimahaia. Esan bezala, Maite Toledok aipamen berezia jaso du, Josu Esnaolarekin (*Mariposaren hegaldia*) eta Alvaro Rabellirekin (*Leihotik begiratzeara atsegin dut*) batera. Maiteren *Inaxi Sardaneta* ipuina urtarrilaren 20ko *Deia*-n argitaratu zuten, *Ortzadar* gehigarrian.

Gaztelarazko lanen artean, bestalde, Oscar Sipanek (*Maldito Kafka*), David Manganak (*Profesional*) eta Eva Biggik (*Elbar*) jaso dute epaimahaiaren aipamen berezia.



David Mangana, Alvaro Rabelli, Maite Toledo, Eva Biggi, Xabier Leizaolaren bi alabak eta Josu Esnaola, eguneneko ekitaldian.

E, TXO!

GUREGAIK/ AISIALDIA

JOKOEN BIRZIKLAPENAREN
GAINEKO IKASTAROA

Hezkide Eskolak jokoaren birziklapenaren gaineko ikastaroa antolatu du. Martxoaren 20an eta 27an eta apirilaren 3an izango dira eskolak, goizez eta arratsaldéz, Hezkide Eskolan, Donostian.

Batez ere, aisialdiko begiraleei, zuzendariei eta hezitzaileei zuzenduta dago ikastaroa. Martxoaren 12ra arte dago izena emateko aukera. 60 euro ordaindu beharko da. Informazio gehiago topatuko duzue www.hezkide.org web gunean.

UNIBERTSITATEKO IKASLE
IZANDAKOEN IRITZIAK

Estatuan egindako ikerketa baten arabera, unibertsitatean ibilitako eta gaur egun lanposturen bat duten hamar lagunetik bik diote ez lirakeela unibertsitate irizuliko.

2000. urtean ikasketak amaitu zituztenen artean egin dute ikerketa hori, eta, horren arabera, %10ek langabezian jarraitzen dute; %77k, berriz, lehendabiziko urtean aurkitu zuten lana; eta %71 pozik daude daukaten lanarekin.

JARDUNEKO HERRITAR
GAZTEAK SARIKETA

Europako Kontseiluaren Jarduneko Herritar Gazteak sariketarako deialdia egin dute. Gazteek gizartean parte har dezaten egindako proiektuak saritzen dituzte. Aurtengo gaia izango da indarkeria; hori aurreikusi eta borrokatzeko proiektuak sarituko dira. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 15ean amaituko da. Sariketa horren gaineko informazio zabalagoa topatuko duzue Europako Kontseiluaren www.coe.int webgunean.

Ziber-lekuak, gazteen aisialdiko toki berriak

AINTZANE IRIZAR

Teknologia berriek gero eta leku handiago hartzen dute guztion bizitzan; baita gazte-txoen eguneroko jardunean eta aisialdian ere. Asteburuetan, esaterako, ordu asko pasatzen dituzte ziber-lekuan.

Aurreko astean, ziber-leku berria zabalduta zuten; aste bukaeran, bete-bete eginda zegoen. Gaztetxo mordoak zegoen hantxe; gehienak hainbat jokotara jolasten zebiltzan.

Aurrez, bazegoen beste ziber-leku bat. Han ere gaztetxo mordoak ibiltzen zen, jolasten, batez ere. Toki horietako erabiltzaile gehienak 14 eta 16 urte bitarteko

mutilak izaten dira. Hala ere, neskatila koadrilak ere egoten dira.

Bergarako Udalak iaz egindako gazteen gaineko azterketan jaso zuten fenomeno hori. Azterketa horretako txostenean esaten denaren arabera, "teknologia berriek gazte eta nerabeengan eragin zuzena dute; Internet, PlayStation eta poltsikoko telefonoa, esate baterako, gaztetxo gehienek dituzte".

Gainera, ikerketa horren arabera, "gazteen aisialdia kontsumoarekin lotuta dago; izan ere, diru barik aisialdi eskaintza baldintzatuta dago".

Hortaz, badirudi, gehienek Internet etxean ere badutenez, ziber-lekuetara, batez ere, jolastera joaten direla.



Asteburuan bete-bete eginda zegoen ziber-lekua.

LOTSABARIK/ Julen Hurtado

"Futbolari profesional izan nahi nuke"

AINTZANE IRIZAR

Adina galdetu eta "gaur bete ditut 16 urte", esan zigun. Kasualitatea ere bada; zorionak, Julen! Plan berezirik ez zuen egun horretarako, baina geuk jarri genion: elkarrizketa hau egin genion.

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gauza asko, baina futbol jokalaria naizenez, Ipintzako futbol zelaian belarra jarriko nuke.

• Zure karpeta zer irudi edo pegatina daukazu?

Bittor Alkizaren irudi bat daukat; Realean, gehien gustatzen zaidan jokalaria da.

• Telebistako saiirik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Salsa rosa ez zait batere gustatzen; C.S.I. telesaila da, niretako, gustukoena.

• Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?

Aznar; gustukoena, berriz, Turingo Juventus futbol taldeko Nedved jokalaria.

• Zerk amorratzen zaitu?

Euren bizitza kontatuz dirua irabazten dutenek.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Laguntasuna.

• Zer ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Ikasketei, lagunei eta futbolari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Oso alaia naizela; akatsa, berriz, askotan, berba larregi egiten dudala.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Neska koadrila bat ikusiz gero, aitzakiaren bat topatu eta eurengana hurbiltzen gara.

• Zure bikotekide ideala zelaioa izango litzateke?

Jatorra, alaia eta nire zaletasun berberak dituen.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

AEBetara, harrapatzen dudana lehenengoarekin.


• Etorkizunerako amets bat?


Futbol jokalaria profesional izatea.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Futbola eta lagunekin irtetea • LIBURU BAT: 'Kittano', Joxantonio Ormazabalena • FILM BAT: 'Ocean's Eleven' • MUSIKA TALDEA: Berri Txarrak • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez





Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Jone Ibarra
Urtarrilaren 30an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorka Martin
Urtarrilaren 26an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Leire Martin
Urtarrilaren 26an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainara Rubio
Urtarrilaren 28an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aritz Rubio
Otsailaren 4an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Alex Piñero
Otsailaren 1ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Jokin eta gurasoak.



BERGARA
Jokin Piñero
Otsailaren 1ean, urtebete.
Urte askotarako!
Alex eta gurasoak.



BERGARA
Julen Bilbao
Urtarrilaren 31n, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Gai...



BERGARA
Xabier Argarate
Urtarrilaren 27an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




ANTZUOLA
Jone Jauregi
Urtarrilaren 30ean, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Mikel.



BERGARA
Itsaso Goenaga
Urtarrilaren 30ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Maddi.



BERGARA
Mireia Arietaleanizbeazk
Urtarrilaren 31ean, 4 urte.
Etxekoak, bereziki Le...



BERGARA
Alex Astiazaran
Otsailaren 1ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Xabat Akarregi
Urtarrilaren 31n, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Alberdi
Otsailaren 3an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Joanes Ruiz de Egu
Urtarrilaren 30ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorka Fernández
Otsailaren 2an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak, bereziki amama eta Unai.



BERGARA
Unai Irizar
Urtarrilaren 29an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak, bereziki, Iosu, Leire, Danel.



BERGARA
Jon Cotillas
Urtarrilaren 31n, 5 urte.
Urte askotarako!
Nahia eta familia.



BERGARA
June Igarza
Urtarrilaren 31n, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 30a / 187. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33, 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Kiroldegi berriaren aurreproiektua eginda

AINTZANE IRIZAR

Orain dela bi aste Jose Angel Zabalo alkateak aurkeztu zituen proiektuen artean, kiroldegi berriarena azaldu zien herritarrei. Kiroldegiaren aurreproiektua eginda dute dagoeneko; behin betiko proiektua, baina, oraindik ez dakite noiz egingo duten.


Aurkeztutako proiektuen artean, kiroldegiarena izango da, seguruena, lehenengo aurrera eramango dutena; izan ere, gaur egungo frontoia bota eta han etxebizitzak, erretiratuen egoitza, anbulatorioa eta abar egin ahal izateko, lehendabizi, kiroldegia egin beharko dute.

Dena dela, Izartu programako dirulaguntzen mende dago proiektu hori, gainerako guztiak bezala. Eusko Jaurlaritzari aurkeztuko dizkio Udalak lehengon jendaurrean aurkeztutako proiektuak, eta horiek Izartu programan onartzea espero dute.

AURREPROIEKTUA EGINDA

Kiroldegi berria izango denaren aurreproiektua dagoeneko eginda dago; proiektua noiz egingo duten, baina, oraindik ez dakite Udaleko arduradunek. Ingenieria XXI enpresak egin du aurreproiektua.

Gutxi gorabehera, Udalaren asmoak zeintzuk diren ikusten da aurreproiektu horretan. Dena dela, proiektua egiteko, herriko kirol taldeetako arduradunekin



Kiroldegia Iriarte eta Zupide baserrien artean egitea aurrez ikusten dute.

berba egin eta euren iritziak ere hartuko ditu kontuan Udalak.

KIROL GEHIAGO EGITEKO AUKERA

Alkateak azaldutakoaren arabera, kiroldegi berria izango den eraikinak bi zati izango ditu, bi mailatan eraikita: maila altuean, frontoia, gimnasioa, aldagelak eta abar egiteko asmoa dute. Beheraxeago, berriz, hainbat kiroletarako pista: eskubaloia, saskibaloia, areto futbola... Eraikinaren bigarren zati horrek tei-

latu laua edukiko du; horrela, gaineko aldean, esaterako, tenis pistak egiteko aukera egongo da.

IGERILEKURIK EZ

Kiroldegiaren aurreproiektuan, baina, ez dute igerilekurik aurrez ikusten. Dena dela, igerilekua egiteko aukerarekin "koherentea" den eraikina izango dela azaldu zuen Jose Angel Zabalo. Hots, etorkizunean igerilekuak egiteko aukera ematen duen eraikina izango dela.

FUTBOLA

Kadeteen taldeak aurrera jarraituko du

AINTZANE IRIZAR

Azkeneko asteotan kolokan egon da kadete mailako futbol taldearen etorkizuna. Antzuola Kirol Elkarteko zuzendaritzak, baina, taldearekin aurrera jarraitzea erabaki zuen aurreko egubakoitzean egin zuen batzarrean.

Taldeko entrenatzaileek eta jokalariek, hala ere, eguaztenean egin zuten batzarrean erabaki zuten egokiena taldea desegitea izango litzatekeela. Izan ere, azkenaldian, jokalariek justuekin zebiltzan. Gainera, gazte mailan ere antzera dabilzanez, kadete

mailako sei bat jokalarik bi taldeetan jokatu behar izan dute asteburu askotan.

Hori ikusita, entrenatzaileek eta jokalariek eurek erabaki zuten ezin dutela aurrerantzean horrela jarraitu.

Beste erabaki bat ere hartu zuten zuzendaritzak: kadete mailako bi jokalariek gazte mailako taldera pasatzea eta kadete mailan, berriz, infantil batzuk hartzea. Behin aldaketa horiek egin da, horrela geratuko dira bi taldeak: kadeteen taldeak hainbat jokalarik izango ditu eta gazte mailako taldeak, berriz, hamabi.

LABUR

Santa Ageda eskean irtengo dira hainbat herritar datorren eguaztenean, hilak 4

Urtero moduan, kintoak eta Antzuolako Abesbatza hilaren 4an Santa Ageda bezperan, irtengo dira Santa Ageda eskean. Antzuolako Abesbatzako kideek 18:30ean hasiko dute eskea. Herriko Plazatik irtengo dira eta herri osoan zehar ibiliko dira.

Oraingo asteburuan ere zabalik egongo da Espainiako gerraren gaineko erakusketa

Aurreko asteburuan zabaldu zuten Espainiako gerraren gaineko erakusketa Orlan etxean. Oraingo asteburuan ere zabalik egongo da, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara. Sabino Arana kultur elkargoaren ¡Nunca más! Gerra irudiak 1936-1939 erakusketa eta Debagoieneko fusilatuen lagun eta senideak taldearen Hazia erein zenutenoi erakusketa daude ikusgai.

**LEKY-BERRI
MERENDEROA**

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



ELKARTASUNA

Sahararako 602 kilo elikagai batu dituzte

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako herri gehienetan bezalaxe, Antzuolan ere Sahararako elikagaiak eta dirua batzen ibili dira, Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteak deituta. Olioa, lekaleak, azukrea, arroza... Guztira, 602 kilo elikagai batu dituzte.

AINTZANE IRIZAR

Bi astean Sahararako elikagaiak eta dirua batzen ibili dira herrian. Guztira, 602 kilo elikagai eta 1.832 euro batu dituzte; 232 euro batu dituzte herritarren artean, 1.000 euro Anelkarrek jarri ditu -aurrez antolatutako hainbat ekitalditan batutako dirua, hain zuzen- eta Udalak, herriz, Saharari laguntzeko 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuen.

Aurreko egubakoitzean, batutako elikagai guztiak 39 kaxatan sartu eta Bergarara eramán zituzten; handik, inguruko herrietan batutako elikagaiekin batera, Alacantera eramango dute batutakoa kamioetan, eta Alacantetik, itsa-

sontziz, Oranera garraiatuko dute; azkenik, Oranetik Tindoufeko sahararren kanpamendutara (Aljeria) bidaliko dituzte elikagaiok.

Hona hemen herrian batutako elikagai kopurua, zehatz-mehatz: 111 litro olio, 77 kilo pasta, 10 kilo zereal, 126 kilo arroz, 58 kilo azukre, 20 kilo atun eta 200 kilo lekale batu dituzte.

BETAURREKOAK ERE BIDALI DITUZTE

Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak, diruaz eta elikagaiez gain, betaurrekoak ere bidaliko ditu Saharara, iaz bezala. Betaurrekoz betetako lau kaxa bidaliko dituzte. Iazko kanpainaren barruan, Fronte Polisarioak Euskal Herrian duen delegazioko ordezkari Salem Embarek izan genuen herrian, berbaldia egiten. Hantxe, Anelkarreko kideek Saharara betaurrekoak bidaltzeko aukera aipatu zioten. Oso ondo iruditu zitzaion, eta halaxe egin zuten; aurten ere gauza bera egitea erabaki dute. Herritarren artean batutakoak eta Bergarako optika denda batek emandakoak dira betaurrekoak.

LABUR

Hautesleen errolda ikusgai dago astelehenera arte

Martxoaren 14an egingo diren hauteskondeei begira, dagoneko ikusgai dago hautesleerrolda udaletxean, datorren astelehenera arte, otsailak 2. Interesa dutenek errolda hori aztertu eta, nahi izanez gero, erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

Eskolako jolastokia errentan hartzeko aukera egongo da

Herri Ikastetxeko jolastokia edo kirolgunea errentan hartzeko aukera egongo da aurrerantzean. Halaxe erabaki berri du Udalak. Egutero, 18:00etatik aurrera hartu ahal izango da errentan. Asteburuetan ere egongo horretarako aukera. Orduko sei euro kobratuko dituzte, eta, jolastokiaz gainera, aldagelak, dutxak eta argia izango dituzte. Erreserbak egiteko, udaletxera deitu beharko da.

Horrela, gazteei, batez ere, kirola egiteko aukera zabala goa eman nahi izan diete.

Ipuin kontaketa arrakastatsua

Zapatu arratsaldean umez bete zen Udal Liburutegia; izan ere, Oihulari Klown taldeko Joanes eta Anduriña ipuin kontalaria etorri ziren. Ipuin mordoa kontatu zituzten, eta gustura geratu ziren ume guztiak. 18:00etan hasi zuten lehendabiziko emanaldia, ume txikienendako. 30 bat ume egon ziren. Bigarren saiora, herriz, 36 ume joan ziren. Udal Liburutegiko arduradunen asmoa da ipuin kontaketa saioekin jarraitzea. Seguruena, datorren hilean bertan egingo dute hurrengo saioa./A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Urtarrilak 31
16:00: Antzuola-Axular (Gazteak)
Otsailak 1
12:00: Antzuola-Soraluze (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 1 Lagun Onak 1 (2. erreg.)
Beti Ona 0 Antzuola 2 (Gazteak)
Ikasberri 6 Antzuola 1 (Kadeteak)
Antzuola 0 Bergara 5 (Neskak)

HERRITARRENHITZA/ Jone Lete · Ikaslea

Hezkuntza, guztion esku

Gure herri txiki hau urtez urte handituz doa. Hamaika etxebizitza egin dituzte eta inguruko herrietako etxebizitzaren prezioak direla eta, makina bat jende etorri da kanpotik Antzuolara bizi izatera.

Gero eta jende gehiago bizi bada ere, herriko eskaintzak ez dira era berean handitu. Poliki-poliki aurrera baldin bagoaz ere, gauza ugari dago faltan herrian. Baina goraipe-dezagun ondo egina dagoena.

Hezkuntzara inguratuz, orain dela urte gutxira arte herriko eskola bakarrean ez zegoen jangelarik, baina

gurasoen borroka eta indarrak, umeendako jangela bat jartzea lortu zuten.

Orain, hemendik gutxira "haurtzaindegia" jartzeko asmoa omen dago. Baina haurtzaindegia baino haur eskola deitzea egokiagoa iruditzen zait, ez baita izango haurrak aparkatzeko leku bat, edo behintzat, ez luke izan beharko. Haurrak hezteko leku bat izan beharko litzateke, hain zuzen



"Haur eskola ez da izango haurrak aparkatzeko leku bat"

ere. Herrian beharrezkoa iruditzen zait 0-2 tarteko eskaintza egotea (3-12 badago). Izan ere, gaur egungo familietan normala da bai aitak eta baita amak ere lan egitea, eta besterik ezean haurrak kanpoko haurtzaindegietara eramaten dituzte. Eta hau gurasoentzat ez da oso erosoa. Gainera, herrian aukera hau badago, haurrarentzat ere hobea izango da. Txikitatik ondoren bere

gelakideak izango direnekin heziko baitira.

Ahala eta guztiz ere, kon-tuan hartu behar da haurrak gurasoekin ahalik eta denbora gehien egotea komenigarria dela, haurraren onerako.

Beraz, gurasoei zera aholkatuko nieke, bakoitza bere haurraren ahalik eta denbora gehien egotea. Hala eta guztiz ere, zerbitzu hau egotea herriaren onerako izango da eta, nola ez, haurren heziketarako ere ona izango da, era egoki batean egiten bada. Beraz, erabili ditzagun egoki herrian jarriko diren eskaintzak.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI
taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Juan Cruz
ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak
BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko urtarrilaren 30a / 171. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: 55475/95

Gaur, barikua, hasiko da Inauterietako dantzen ikastaroa, kiroldegian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udaleko Hezkuntza eta Kultura batzordeak Inauteriei euskal kutsua emateko hainbat ekimen antolatu ditu. Besteak beste, Inauterietako dantzei buruzko ikastaroa antolatu du, helduendako. Hain zuzen ere, gaur iluntzean hasiko da ikastaroa, kiroldegian.

Inauteriei euskal kutsua emateko asmoz, Udaleko Hezkuntza eta Kultura batzordetik hainbat ekimen bultzatu dituzte aurten. Euskal giroa lortzeko, herriko hainbat taldek jardungo dute lanean: dantza taldea, guraso elkarteak, herri eskola eta musika eskolak, besteak beste.

Ekimen horien artean, Inauterietako euskal dantzak herri-ratzea dago. Horretarako, dantza ikastaroa egingo dute, helduendako. Gaur, barikua, hilak 30, arratsaldeko 19:30ean hasi eta otsailaren 20ra bitarteko bariku guztietan izango dira entseguak kiroldegian.

Herritar guztiek parte hartu ahal izango duten ikastaro horretan, besteak beste, Lantzeko zortzikoa, txantxo eta polka dantzak



Escolako umeak Inauteri-bariku goizean aterako dira kalera mozorrotuta.

erakutsiko dituzte. Miren Atxotegik jardungo du irakasle lanean eta Arrasateko Lore Gazteak dantza taldeko Unai Diez izango du laguntzaile.

Nagusiendako ikastaro berezia egongo bada ere, herriko umeek Elgetako dantza taldean ikasiko dituzte Inauterietako dantzak.

MOZORROAK

Behin dantzak ikasita, otsailaren 20an, Inauteri-barikuan, jendaurrean erakutsiko dituzte, mozorrotuta.

Umeek Lantzeko pertsonaien mozorroak jantziko dituzte Inauterietako barikuan

Goizean, eskolako umeek Lantzeko Inauterietako pertsonaien mozorroak jantziko dituzte. Herriko kaleetan ibili ostean, plazan egingo dituzte dantza taldean ikasitako dantzak.

Iluntze aldean, 20:00ak inguruan, berriz, ikastaroan parte hartu dutenek ikasitako dantza dantzatzeko aukera izango dute plazan. Egun horretan gogor dute herritarrek ere egin ahal izango dute dantza. Azken batean, euskal ohiturei eustea eta horiek bultzatzea da ekimen horien helburua.

Ikastaroaren antolatzaileak eta jai hori bultzatu dutenek elkartarrek parte hartzea animatu nahi dituzte, dantzatzu zein musika tresnaren bat joaz edo Lantzeko Inauterietako mozorroak jantziz.

ELURRA

Elur egunetan bideei buruzko informazioa

I.A.

Egun hauetan eta aurrerantzean elurteek Elgetako errepideetan sor ditzaketan arazoak direla-eta, Udalak jakinarazi du elurra kentzeko bi makina izango direla Elgetan: Diputazioarena bat eta Udalarena bestea.

Bi makinok, koordinatuta, Elgetara doazen lau errepideetan jardungo dute: Bergarako bidean, Eibarkoan, Arrasatekoan (Kantantzarkoan) eta Elorrikoan, hain zuzen ere.

Bestalde, Elgetako enpresetara etortzen diren langileei eta herritik kanpora joaten direnei, Udalak momenturako informazio zerbitzua eskainiko die errepideen berri emateko, Zerbitzu hori goizeko 06:00etatik gaueko 22:00ak arte izango da elurteak iragarritan daudenean.

Horretarako, udaletxeko telefonora deitu beharko da: 943 76 80 22. Internet bidez ere jaso ahal izango da errepideen egoeraren berri, Elgetako Udaleko webgunean: www.elgeta.org.



Elurteak iragarritan daudenean, telefonoz eta Internetez emango dute informazioa.

LABUR

Hautesle errolda ikusgai ipini dute udaletxean

Martxoaren 14an, Espainiako Kongresurako eta Senatuko ordezkariak aukeratzeko hauteskunde orokorrak izango dira. Hori dela-eta, udaletxean ikusgai ipini dute Elgetako hautesleen errolda. Zerrendaren kontsulta egin nahi duenak datorren astelehenera (otsailak 2) izango du horretarako aukera. Behin errolda ikusi, eta datuak zuzen badaude, hautesleak aldatzeko egin ahal izango du udaletxean bertan, errolda jendaurrean egongo den epean.

ELKARRIZKETA

JESUS GUTIERREZ/HISTORIALARIA

“Gudarien balioak aldarrikatu behar dira”

I.A.

Eibarko historialari honek Espainiako gerrak Eibarren eta Elgetan izandako ibilbidea eta ondorioak jasotzen dihardu, gero liburu batean argitaratu eta elgetarrek gerrako kontuak jakin ditzaten.

Nola bururatu zitzaizun Espainiako gerrari buruzko liburu bat idaztea?

Trantsizioan Euskal Herriko historia berreskuratzeko hainbat pauso eman ziren, baina orokorrean. Azken 10 urteotan, ordea, herrietako historia jasotzen hasi da. Hortik abiatuta, eta Eibarren Errepublikari buruzko liburu bat eginda nuenez, interesgarria iruditu zitzaidan 36ko gerra ikertzea, eta, arlo militarretik ez ezik baita gizarteko esparrutik ere. Liburua orain egin behar da, gerra bizi izan zutenak pixkanaka hiltzen ari baitira.

Zergatik Eibar eta Elgeta?

Gipuzkoako gainontzeko herrietatik tropa frankistak ia oztoporik gabe pasatu baziren

ere, Eibarren eta Elgetan oposizio gogorra aurkitu zuten, eta zapi hilabetez egon ziren bertan, bi herriok indarrez gainditu zituzten arte. Gainera, Intxorta bere kokalekuagatik oso esanguratsua izan zen Espainiako gerran. Beraz, kontatzeko asko dagoelako aukeratu nituen bi herriok, baita gertuko ditudalako ere.

Zer jasoko du liburuak?

Bost ataletan banatu dut: Errepublikara; gerraren hasiera, hau da batailoien sorrera; gerra bera; azken erasoa; eta gerraren ondorioak.

Nola jasoko duzu informazioa?

Liburuetatik, artxiboetatik, hemerroteketatik, historialariek hitz eginez, Internet bidez, eta

“Gerra bizi zutenek beldurrez-edo isilpean gorde dituzte garai hartako kontuak”

garai hartako jendea elkarrizketatuz.

Azkenaldian zergatik hitz egiten da gehiago Espainiako gerrari buruz?

Espainiako gerran ibilitako jende askok isilpean gorde dituzte garai hartako kontuak, beldurrez-edo. Askotan egokitu zait informazioa jasotzeko elkarrizketak egitera joan eta errezeloz hitz egitea. Baina orain argitara atera bada, izan daiteke berreskuratu egin behar direlako orduko kontuak eta baita gudarien balioak aldarrikatu ere. Izan ere, badirudi urte luzetan ezkutuan ez ezik mespretxatuta ere egon direla.

Elgetako jendeak badaki gerrako berri?

Intxorta dela-eta jendeak badakizki gauza batzuk, baina ez asko. Beraz, liburu polita izango da, batez ere, belaunaldi gazteek jakin dezaten nola bizi izan zen gerra euren herrian.

Noizko izango da liburua kalean?

Hainbat atzerapen izan dira, baina gertatzen dihardut, eta datorren urte amaierarako aurkeztea da nire asmoa.



I.A.

ADINEKOAK

Bainuetxe programan izena emateko epea, maiatzera arte

I.A.

Immersok urtero antolatzen du adinekoendako bainuetxe programa. Otsailetik abuztura bitartean joan nahi dutenek jadanik eman dute izena udaletxean; izan ere, asteon amaitu da horretarako epea.

Gainontzekoak, ordea, oraindik garaiz dabilta. Izan ere, bainuetxeetara joateko irailetik abendura arteko epea aukeratzeko dutenek maiatzaren 7a baino lehen joan beharko dute, aste-

lehenetan edo ostegunetan, Gizar-te Zerbitzuetara.

BALDINTZAK

Programa horren bidez, erretiratuek eta pentsiodunek bainuetxeetako tratamenduak jasotzen dituzte ohikoa baino prezio merkeagoan. Hala ere, hainbat baldintza bete behar dira plangintza horretan parte hartzeko: pentsioduna izatea (erretiroagatik edo elbarritasunagatik), eta, pentsiodun alarguna izanez gero, 60 urte beteta izatea. Bestalde, nork

bere kabuz ibiltzeko gauza izan behar du, gaitasun kutsakorrik ezin da izan, eta sendagileak baimenik eman ezan ere ezin izango da joan bainuetxera.

Herriatik gertuen dauden bainuetxeak Zestoakoa eta Karrantzakoa dira, baina beste hainbat tokitara joateko aukera ere bada. Bainuetxeak aurki baitaitezke Andaluzian, Aragoian, Kantabriari, Gaztelan, Katalunian, Valentzian, Extremaduran, Galizian, Balear Uharteetan, Errioxan, Murtzian eta Nafarroan.

LABUR

Elkarriko ordezkari Aitziber Blancok hitzaldia egingo du egunean liburutegian

Datorren egunean, otsailaren 5ean, Elkarriko hitzaldia egingo du Elgetan. Hitzordua arratsaldeko 19:00etan izango da, liburutegian, eta Aitziber Blanco Elkarriko Gipuzkoako ordezkaria izango da hizlaria. Elkarriko Bake Konferentzia berriaren gizarte fasea aurkeztuko du. Bake Konferentziaren aldeko sinadura bilketa kanpaina abian da, eta Euskal Herrian 100.000 sinadura jaso nahi dituzte.

San Blas eta Santa Ageda egunak ospatuko dituzte eskolako umeek datorren astean

Otsailaren 2an, San Blas bezperan, eskolako umeek San Blas opilak egingo dituzte gelan. Hurrengo egunean, nahi duten ikasleak mezatara joan ahal izango dira opilak bedeinkatzera. Meza goizeko 10:00etan izango da. Bestalde, San Blas hurrengo domekan, otsailaren 8an, izen bereko ermitan meza egongo da eguerdiko 13:00etan. Santa Ageda bezperan, berriz, eskolako ume guztiak herriko kaleetan ibiliko dira haren omenez koplakantuan.

SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ILE ADARDEGIA

♀♂

Plaza Andra Mari 2
Tf. 943 76 81 97
20690 Elgeta

RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Jose Mari Iturberen lehen meza

Jose Mari iturbe antzuolarrak, Ankurkuakoak, lehen meza esan zuen eguneko argazkia dakarkizuegu oraingo asteen. 1954ko abenduaren 25ean, hain zuzen ere, esan zuen lehendabiziko meza, Antzuolako parrokian. Domingotarra da Jose Mari Iturbe, eta gaur egun, Leonen dago, Virgen del Caminoko Santutegian.

Garai hartan ohitura zen bezala, herriko dantzari koadrila joan zen Jose Mari Iturberen bila, etxera, Ankurkuara; gaur egun, Aiherra kalea dagoen tokian, gutxi gorabehera, zegoen Ankurku etxea edo kaleko baserria. Etxetik elizara dantzariekin joan zen Jose Mari, eta mezaren ostean, dantza eskaini zioten. Horrexegatik ikusten dugu aldameneko argazkian dantzari eta txistulariz inguratuta.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik, honako hauek: Enrike Jauregi, Manuel Garitano, Gervasio Legorburu, Jose Mari Iturbe, Jose Mari Larrea, Ascensio Azkarate, Jose Luis Fernandez eta Luis Azkarate.

Makurtuta, berriz, honako hauek ikusten ditugu, ezkerretik hasita: Francisco Etxaniz, Felix Larrea, Jose Lizarralde, Pello Lete (aurreko aldean dagoen umea) eta Felix Agirre.

Argazkia: Kontxi Laskurain



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

EDEL
TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA


JAUJA
KIROLAK

**Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95**

+ IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUA

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzailleendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzailleendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

XVI. mendeko ze etxetako sarrerako atean ageri dira irudi hauek?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|---|--|
| <p>1.
Zein urtetan jaio zen Justo Garate Arriola bergarar ospetsua?</p> <p>A/ 1907an.
B/ 1911n.
C/ 1900ean.</p> | <p>2.
Ze enpresatan ari da Jose Mari Zezeaga pilotaria?</p> <p>A/ Asegarce.
B/ Eskutik.
C/ Aspe.</p> | <p>3.
Zein da <i>Deia</i> egunkariak saritu duen Maite Toledoren ipuina?</p> <p>A/ Inaxi Sardaneta.
B/ Leihotik begiratzea atsegin dut.
C/ Tximeletaren hegaldia.</p> |
|--|---|--|



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JAVIER IGARZArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Javier!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Elortza-Bolu** / Galde debalde: **1-C, 2-B, 3-C.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Kas limoia edo laranja

33 cl.

0,26€

43 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Justo Garate (1)


KOLDO PEREIRA

Justo Garate Arriola 1900eko abuztuaren 5ean jaio zen Barrenkaleko 27. zenbakian, eta Argentinako Mendoza hirian hil zen 1994ko uztailearen 2an. XX. mendeko euskal kulturako pertsonaiarik garrantzitsuenetakoa dugu. Mediku bikaina eta Madrilgo eta La Platako (Argentina) unibertsitateetako doktorea izan zen. Ikasketak egin zituen Friburgo, Paris, Berlin, Heidelberg eta Munichen. Mediku jardun zuen Bilbon eta Argentinako Tandil eta Mendoza hirietan. Aldi berean, eskolak eman zituen Basurton, eta Mendozako Fakultateko Klinika Medikoko katedradun izan zen.

Medikuntzaren alorrean, psikologia, patologia, pedagogia medikoa eta medikuntzaren historia jorratu zituen. Bere jakin-min amaiezina ase nahian, biologian, botanikan, zoolo- gian eta geografian sakondu zuen, eta euskal filologia, historia eta etnografia ere ikertu zituen.

Europako eta AEBetako ikerlari eta pentsalari ezagunen lanak itzuli zituen; bederatziz hizkuntza zekizkien. Ikerlari emankorra, 10 liburu eta 620 lan eta idatzi inguru argitaratu zituen.

XX. mendeko euskal kulturako pertsonaiarik garrantzitsuenetakoa dugu Justo Garate



ARTXIBOA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

OREKA

PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO ETA BIKOTEKO TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antsietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel.: 676 617 055
Ainhoa Basurko Tel.: 615 703 725
AURRERA ERAIKINA
Urtzalle 1. solairua, EIBAR



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobea den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 